

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



ikusgai maiatzaren 11an

**Artea eta Txina 1989 ondoren:  
Munduaren antzerkia**

## *Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia*

- Datak: 2018ko maiatzak 11–irailak 23ra
  - Komisarioak: Alexandra Munroe (Solomon R. Guggenheim Museum, New York); Philip Tinari (UCCA, Pekin); Hou Hanru (MAXXI, Erroma)
- 
- Erakusketa honek arte-esperimentazioa dakarkigu, globalizazioaren hasierak eta Txinak munduko potentzia izaterainoko goraldiak ezaugarritutako epealdikoa. Beste era batera esanda, artista garaikide txinatarrek agertoki artistiko global berri bat sortzeko prozesuan funtsezko eginkizuna azaltzen digu.
  - Sei atal tematiko eta kronologikotan banatuta dago erakusketa, eta hainbat eratako jarduera artistikoak biltzen ditu: hala nola, performancea, pintura, argazkilaritza, instalazioa eta bideoarte; halaber, azken urteotako gure historiari buruz hausnartzera garamatza, artista garaikide txinatar esanguratsuenen ikuspegitik.
  - Ardatz gisa bi artista-belaunaldiren jarduera kontzeptualak hartuta, erakusketak aztertzen du zer eginkizun duten egile txinatarrek behatzaile kritiko gisa eta Txina munduko potentzia izatera iristeko eragile gisa, eta haien lanak arte globalaren historiaren testuinguruan kokatzen ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak *Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia* dakarkigu; Txinako arte garaikideari buruz orain arte egindako erakusketarik handiena da, eta Txinaren azken urteotako historiaren aldi eraldatzaileena aurkezten digu: 1989tik (Tiananmen plazako protestak izan ziren urtea) 2008ra (Pekingoko Joko Olinpikoak egin ziren urtea). Solomon R. Guggenheim Museum-ek antolatuta, erakusketak Txinako artearen analisi eta interpretazio berriak eskaintzen dizkigu Gerra Hotza amaitu, globalizazioa garatu eta Txina munduko potentzia bihurtu den testuinguru batean.

Sei atal tematiko eta kronologikotan banatuta dago erakusketa, eta hainbat eratako jarduera artistikoak biltzen ditu: hala nola, performancea, pintura, argazkilaritza, instalazioa, bideoarte eta proiektu sozialki konprometituak. Ardatz gisa bi artista-belaunaldiren jarduera kontzeptualak hartuta, erakusketak aztertzen du zer eginkizun duten egile txinatarrek behatzaile kritiko gisa eta Txina munduko potentzia izatera iristeko eragile gisa, eta haien lanak arte globalaren historiaren testuinguruan kokatzen ditu.

Erakusketako komisario nagusi Alexandra Munroeren hitzetan, “*Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia* Txinako eta nazioarteko artista, talde eta mugimendu nagusiei buruzkoa da; beren probokazioekin, artista, talde eta mugimendu horiek ideologiarik gabeko errealitate bat eraiki nahi dute, banakoak taldearen aurrean duen zeregina indartu, eta Txinako esperientzia garaikidea zehaztu, ikuspegi unibertsal batetik. Analisi

horrek azken urteotako gure historiari erreparatzera garamatza, hausnarketarako ahalmen handiena duten Txinako artista garaikideetako batzuen ikuspegitik”.

Guggenheim Bilbao Museoko bigarren solairu osoa hartzen du erakusketak. Bertan, 60 bat egile eta talderen lorpen kontzeptual eta artistikoak jartzen ditu agerian, 120 lan baino gehiagoren bidez, bai Solomon R. Guggenheim Foundation-eko bildumakoak, bai Asiako, Europako, Ekialde Ertaineko eta AEBko erakunde eta bildumagileenak.

Ondoren zehazten diren atalen bidez, bereizgarri gisa globalizazioa eta kapitalismoarekiko eta hark agintzen zuen oparotasunarekiko eszeptizismoa dituen testuinguruan garatutako esperimentazio artistikoko jarduerak aztertzen ditu erakusketak.

### ***Munduaren antzerkia***

Erakusketaren izenburua, *Munduaren antzerkia* (*Theater of the World*, 1993), Parisen bizi den Huang Yong Ping artistaren instalazio batetik hartu da; instalazio hura lehen aldiz Stuttgarten aurkeztu zen, 1993an. Kaiola-formako pieza horrek hainbat espezieetako intsektuak eta narrastiak ditu barruan. Globalizazioaren aroaren metafora bat da, eta kosmologia txinatarrean eta Michel Foucaulten modernitatearen kritikan oinarritzen da, baita Ilustrazioaren garaiko mendebaldeko ideietan ere (alegia, panoptikoa kontrol-egitura gisa erabiltzeari buruzkoetan).

## **ATALAK**

### **Sarrera [208 aretoa]**

Sarrera-aretoa erakusketaren narratiborako funtsezkoak diren bi obra handi ditu. Lehenengoa bi zatiko instalazio bat da: *Munduaren antzerkia* (*Theater of the World*, 1993) eta *Zubia* (*The Bridge*, 1995), biak Huang Yong Pingek. Huang “panoptikoa” kosmologia eta magia taoistetan, modernitatea presondegi gisa ikusten duten Michel Foucaulten teorietan eta globalizazioaren gaitzei buruzko eztabaidetan oinarrituta dago, eta kaosaren izaera modernoaren metafora bizi bat da. Sei paneleko tinta-koadro bat ere badago, Qiu Zhijie-rena, *Munduaren antzerkiaren mapa* (*Map of Theater of the World*, 2017) izenekoa. Mapa erraldoi hau Guggenheim Museoak agindu zuen. Artistak erakusketari buruz egin zuen ikerketan oinarrituta dago, eta Txinaren eta munduaren historia politikoa eta kulturala erakusten du, 1980ko hamarkadatik gaur egun arte; halaber, erakusketa osatzen duten funtsezko artelan ugari biltzen ditu.

### **1989: debekatuta norabidea aldatzea [208 aretoa]**

Atal honek bi gertakari jartzen ditu arreta; hain zuzen ere, 1989 Txina garaikidearen historiako mugarri bihurtu zuten bi gertakari. *China/Avant-Garde* erakusketa 1989ko otsailean inauguratu zen Pekinen, Arte Galeria Nazionalean, eta, hura sustatzeko, “debeekatuta norabidea aldatzea” trafikoko seinalearen sinbologia

erabili zen. Erakusketa izugarri hark ospetsu bihurtu zuen laurogeiko hamarkadan zehar loratu zen arte kontzeptual eta esperimental. Hamarkada hartan eman zitzaien hasiera Alderdi Komunistako estatu-gizon Deng Xiaoping-en erreformaren aroari eta irekitasun liberalari. Atal honetan, erakusketa hartako obrak daude; besteak beste, Gu Dexin-en *Plastikozko piezak-287 (Plastic Pieces-287, 1983-85)*, artistak bildu eta forma bitxi eta abstraktu bihurtu arte erretako plastikozko eguneroko ehunka objektuz osatutakoa; urte berean Centre Pompidou zentroan egin zen *Magiciens de la terre* izeneko arte garaikide globaleko erakusketa enblematikoan ere izan zen obra hori. 1989ko ekainaren 4an, armadak Tiananmen plazako manifestariak erreprimitu zituen, eta, horrela, amaiera eman zitzaion abangoardiako artea aliatu sendo izan zuen mugimendu demokratikoari. Wang Xingwei-ren *Pekin berria (New Beijing, 2001)* koadroa argazki ezagun batean oinarrituta dago; argazki hartan ikus daitekeenez, zenbait herritarrek ospitalera daramatzate bi manifestari, korrika eta presaka, triziklo baten eserlekuan. Wangen bertsioan, ikasleen ordez, zauritutako bi pinguinta enperadore agertzen dira.

### **Neurketa Berria: egoeraren analisia [208 aretoa]**

1989ko gertakariak eta haren ondorioek Txina eraldatu zuten. Artistek jardura analitiko eta kontzeptualetara jo zuten kontzientzia kritiko bat adierazteko, agintaritza-sistemak zalantzan jartzen zituen; hain zuzen ere, burokrazia, ideologia eta hizkuntza bera. Zenbait obrak, hala nola Zhang Peili-ren *Ura (Water, 1991)* bideoak eta Wu Shanzhuan-en *Gaur urik ez (Today No Water, 1986-96)* eguneroko ia absurdoak, agerian jarri zituzten artistek irauli nahi zituzten sistemak abileziaz imitatzen zituzten prozesu mekanikoak, sentsibiltate dokumentalak eta bitarteko minimalistak.

### **5 ordu: kapitalismoa, urbanismoa, errealismoa [205 aretoa]**

1992ko udaberrian, hau da, Deng Xiaoping hegoaldean barrera ibili zenean Txinaren liberalizazio ekonomikoa sustatzeko, merkatu askeko eta neoliberalismoko kapitalismoaren beste aro bat hasi zen. Trantsizio demokratiko baten aurreko ametsak bertan behera geratu ziren autoritarismo mota berri baten aurrean; bitartean, urbanizazioa eta globalizazioa inoiz baino gehiago eta bizkorrago zabandu ziren, eta Txina “munduaren fabrika” bihurtu zen. Margolari errealistek bizitza indibidualen eta aldaketa izugarri haren arteko tentsioak islatu zituzten beren lanetan, hala nola *Hazkunderaren lekukoa, 1992 (Witness to Growth, 1992, 2001)*, Yu Hong-ena. Aldiz, Elefante Isats Handia Lantalde kolektiboak (1990-98 aldian jardun zuenak) eszena satirikoak interpretatzen zituen bizkor handitzen ari zen Guangzhouko kaleetan eta eraikuntza-lanen ondoan. *Maniobra seguruak Linhe kalea gurutzatzean (Safely Maneuvering across Linhe Road, 1995)* obran, Lin Yilin performance-artistak zementu arineko blokez egindako hormak muntatzen eta desmuntatzen ditu hiriko kale nagusi jendetsuenetako baten erdian; oinezkoak, ordea, ez dira jabetu ere egiten, eraikuntzaren iskanbilan murgilduta baitaude.

### **Zalantzako plazera: sentsazio-ekitaldiak [206 eta 201 aretoak]**

1990eko hamarkadaren erdialdera, arte kontzeptualeko jarduerak eta kritikotasun postmodernoak Txinako performancearen, argazkilaritzaren eta bideoarteen esperimendu garrantzitsuenetako batzuk sorrarazi zituzten. Ai Weiwei, Txinara itzuli berria zenak New Yorken hamarkada bat igaro ondoren, performance bat egin zuen, *Han dinastiako ontzi bat erortzen uzten (Dropping a Han Dynasty Urn, 1993)* izenekoa, eta, bertan, objektu zahar bat suntsitzen du zabarkeriaz kamera baten aurrean. Ekintza horrekin, balio kulturalen sistemak kritikatzeko dituen atal honetan, 1990eko hamarkadaren amaierako erakusketak historiko erradikaletan aurkeztu ziren obrak daude; esate baterako, Zhang Peiliren *Zalantzako plazera II (Uncertain Pleasure II, 1996)* bideo-instalazioa. Obra horrek 12 monitore ditu, eta haietako bakoitzak azal biluzian hazka egiten duten eskuen lehen planoak erakusten ditu. Haren fenomeno bikiak bezala (alegia, Young British Artists), artista hauek ere esperientzia fisiko eta psikologikoaren mailarik oinarritzeko jartzen dute arreta (sentsazio ere deiturikoa), eta berriz ere errealtate irrazionalera eramaten dute artea.

### **Beste nonbait: bidaiak tarteko lurraldean zehar [207, 209 eta 204 aretoak]**

Txinaren barrualdeko arte garaikidearen historiaren gain, bada atzerrian lan egin eta erakusketetan parte hartu zuten artista txinatarren historia ere. 1990eko hamarkadan eta 2000koaren hasieran, arte garaikide globaleko nazioarteko erakusketek eta bi urtez behingoko narrazio ugari eskaini zituzten, hainbat gai buruzkoak; besteak beste, nortasuna, diaspora eta globalizazioa. Chen Zhen-ek, Parisen bizi zenak, *Bat-bateko erditzea (Precipitous Parturition, 2000)* sortu zuen. Dragoi bihurtu bat da, hogeita metro luzekoa, eta sabaitik zintzilik jarritako bizikleta-gurpilen ganberaz eginda dago; globalizazioaren minak jasaten ari da literalki. Dragoiaren sabela plastikozko auto txiki beltzez beteta dago, Txinak, bizikleten herrialdea denak, bere suntsipena erdituko balu bezala, automobilak nagusitzean. Cai Guo-Qiang-ek bolboraz egindako marrazkia, *Dragoia iora bidean: estralurtarrentzako proiektua, 2. zkia. (Ascending Dragon: Project for Extraterrestrials No. 2, 1989)*, eztanda-gertaera baten proposamenerako diagrama bat da. Gertaera horretako dragoi-formako su artifizialek Paul Cézanne postimpresionista frantziarraren Saint Victoire mendia argiztatuko lukete, gailurreraino, eta Ekialdea eta Mendebaldea elkartu, denbora linealetik haraindi doan adimen kultural berria sortzeko.

### **Zeinen utopia?: Aktibismoa eta alternatibak 2008 inguruan [202 eta 203 aretoak]**

2008ko udan Joko Olinpikoak antolatzeko Pekin aukeratu zutenean, Txina potentzia global bihurtzen ari zela berretsi zen. Atal honetan bildu diren artistak eta taldeak eszeptikoak ziren estatu-alderdiaren lema olinpikoarekiko ("Mundu bat, amets bat"), eta beren proiektu utopikoak sortu zituzten komunitate errealekin eta birtualekin zuzenean lan eginez aldaketa soziala eragiteko. Internet erabili zuten guztiek. Horren adibide ditugu arte garaikideari buruzko Shanghaiko artxiboaren proiektua (1998–2012) eta Cao Fei-ren *RMB City* (2007–2011). Lehenengoak Interneteko foro irekia erabili zuen artista garaikideen Txinako lehenengo komunitate birtuala sortzeko; eta bigarrenak, berriz, hiri txinatar distopiko bat sortu zuen Second Life plataforman. Ai Weiwei Internet aktibismoarako erabiltzearen adibide nagusia *Herri-ikerketak (Citizens Investigation, 2009–2010)* izan zen. Haren bidez, ehunka boluntariok 5.000 ume baino gehiago identifikatzen

eta haien izen-abizenak argitaratzen lagundu zuten; ume haiek 2008ko Sichuango lurrikaran hil ziren, gaizki eraikitako eskola publikoak erortzearen ondorioz.

### **Koda [202 aretoa]**

Erakusketako azken galeriak 1989ko ekainaren 4an Tiananmenen izandako gertakariaren urteurrena ospatzeko sortutako hiru obra dakarzkigu. Gu Dexinen oinarritzko instalazioak, *2009-05-02* (2009), 38 panel ditu; haietan, testu gorri deigarri bat dago, hamaika lerroz osatua, eta basakeriak aitortzen dira (hala nola “jendea jan dugu”). Lu Xun idazle modernoaren maisulanari egiten dio erreferentzia horrek; kontakizun labur bat da, *Zoro baten egunerokoa* (1918) izenekoa, eta kolektibismoa banakoaren ginetik jartzen duten gizarte autoritarioen kritika estalia da.

### **DIDAKTIKA**

Jendeari erakusketako edukia eta kontzeptuak hurbiltzeko eta ulertzen laguntzeko, Museoak hainbat elementu ditu bertako eremu didaktikoan. Batetik, 1989tik 2008ra bitartean Txinan eta munduan izan ziren gertakari artistiko eta politiko nagusien kronologia bat dago. Bestetik, bideo labur batzuk ikus daitezke, erakusketan parte hartu duten artistetako batzuk ezagutarazteko; besteak beste, Lin Tianmiao, Qui Zhijie, Yu Hong, Zhang Peili, Liu Wei, Xu Zhen eta Xu Bing. Bideoez gain, dokumental bat ere badago; CNNk egin du, eta, bertan, proiektuaren eta erakusketako obren ikuspegi orokorra eskaintzen da. Amaitzeko, bisitako esperientzia didaktikoaren osagarri gisa, erakusketaren entzuteko gida osatu bat prestatu da.

Hona hemen erakusketari lotuta antolatuko diren jarduera didaktiko nagusiak.

#### **Mahai-ingurua: *Artea eta Txina 1989 ondoren*** (Maiatzak 9)

Topaketa erakusketako artista nagusiekin (hala nola Zhang Peili, Huang Yong Ping eta Shen Yuan erakusketaren komisarioekin solasean: Alexandra Munroe, Philip Tinari eta Hou Hanru).

#### **Ai Weiwei zinema zikloa** (Ekainak 1, 2 eta 3)

Zinema zikloa, Ai Weiwei artista eta zinemagile txinatarrak egindako zenbait obraz osatutakoa.

### **Katalogoa**

*Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia* erakusketak 324 orrialdeko katalogo bat du; bertan, erakusketaren komisarioek idatzitako saiakerak daude, baita erakusketako piezei buruzko aipamen luzeak ere, tartean hainbat adituren analisi argigarriak (adibidez, Katherine Grube, Lu Mingjun, Stephanie H. Tung eta Xiaorui Zhu-Nowell). Aztergai den epealdi horretako erakusketen historia ere badakar, Hong Kongeko Asia Art Archive artxiboko Anthony Yung-ek eta Jane DeBevoise-k egina.

## **Erakusketaren komisario-lantaldea**

*Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia* Solomon R. Guggenheim Museum-eko Arte Asiarreko arte arduradun senior eta Arte Globaleko aholkulari senior Alexandra Munroek antolatu du, bi komisario gonbidatu hauekin batera: Philip Tinari, Pekingo UCCA zentroko zuzendaria; eta Hou Hanru, Erromako Museo Nazionale delle Arti del XXI Secolo (MAXXI) museoko zuzendari artistikoa. Hauek ere lagundu dute antolaketa-lanetan: Kyung An, Arte Asiarreko arte arduradun laguntzailea; eta Xiaorui Zhu-Nowell, Guggenheim Museoko Arte Asiarreko ikertzaile eta arte arduradun laguntzailea. Artxiboko ikerketa Hong Kongeko Asia Art Archive artxiboaren laguntzarekin egin da. Komisarioek nazioarteko aholkularitza-batzorde batekin egin dute lan. Batzorde hori Txinako Arte Akademiaren (Hangzhou) eta Pekingo Arte Ederren Akademia Zentralaren gidaritzapean bildu da.

## **ERAKUSKETAKO ARTISTAK**

### **Artista taldeak**

Elefante Isats Handia Lantaldea (Chen Shaoxiong, Liang Juhui, Lin Yilin eta Xu Tan)

Neurketa Berria taldea (Chen Shaoping, Gu Dexin eta Wang Luyan)

Sun Yuan & Peng Yu

Ukimen Sentipena taldea (Gu Dexin eta Wang Luyan)

Xijingeko Gizonak (Tsuyoshi Ozawa, Chen Shaoxiong eta Gimhongsok)

### **Banako artistak**

Ai Weiwei

Cai Guo-Qiang

Cao Fei

Chen Zhen

Ding Yi

Ellen Pau

Geng Jianyi

Gu Dexin

Hong Hao

Huang Yong Ping

Kan Xuan

Kwan Sheung-Chi

Lin Tianmiao

Liu Wei

Liu Xiaodong

Liu Zheng

Lu Jie

Ma Liuming

Ou Ning  
Qiu Zhijie  
Rem Koolhaas  
Rong Rong  
Sarah Morris  
Shen Yuan  
Song Dong  
Wang Gongxin  
Wang Guangyi  
Wang Xingwei  
Wenda Gu  
Wu Shanzhuan  
Xiao Lu  
Xu Bing  
Xu Zhen  
Yan Lei  
Yang Fudong  
Yang Jiechang  
Yang Zhenzhong  
Yin Xiuzhen  
Yu Hong  
Yu Youhan  
Zeng Fanzhi  
Zhang Huan  
Zhang Nian  
Zhang Peili  
Zhang Xiaogang  
Zhao Bandi  
Zheng Guogu  
Zhou Tiehai  
Zhu Jia

**Azaleko irudia:**

Chen Shaoxiong

5 ordu (5 Hours), 1993/2006

DSL Collection. Performancearen ikuspegia: The Third Artistic Event of the Big Tail Elephant Working Group, Red Ant Bar tabernaren kanpoaldean, Guangzhou, azaroak 24, 1993

© Chen Shaoxiong

Argazkia: artistaren eskaintza



**Argibideetarako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)  
(prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:

*Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia*

Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. [Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.](#)

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Artelaren ©: artistak, VEGAP, Bilbo, 2018

**Huang Yong Ping**

*Pintura txinatarraren eta pintura modernoaren historia laburra, garbilailuan bi minutuz garbitua* (*The History of Chinese Painting and A Concise History of Modern Painting Washed in a Washing Machine for Two Minutes*), 1987 (1993an berreraikia)

Tinta egurrezko kutxa baten gainean, paper-orea eta beira

76,8 x 48,3 x 69,9cm

Walker Art Center Bilduma, Minneapolis, T. B. Walker Acquisition Fund, 2001

Instalazioaren ikuspegia: *Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia*, Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2017ko urriak 6–2018ko urtarrilak 7

Argazkia: Kristopher McKay

© Solomon R. Guggenheim Foundation, 2017



**Zhang Peili**

30 x 30, 1988

Koloretako bideoa, soinuduna, 32 min 9 s

Guggenheim Abu Dhabi



**Zhao Bandi**

*Zhang gaztea* (*Young Zhang*), 1992

Olio-pintura mihise gainean

214 x 140 cm

Bilduma pribatua

Irudia honen eskaintza: ShanghART Gallery, Shanghai



## Yu Hong

*Deng Xiaoping-en itzulia Txinako hegoaldean barna, "China Pictorial", 2. or., 6 zkia., 1992 eta 1992, Hogeita sei urte, "The Days" filmeko fotograma (Deng Xiaoping's Tour in the South of China, "China Pictorial," p. 2, no. 6, 1992, and 1992, Twenty-Six Years Old, A Still of the Film "The Days,") 2001, hemen: Witness to Growth (Hazkundearen lekukoa), 1999–*

Bi atal, ezkerre: tinta-zurrustazko inprimaketa; eskuina: akrilikoa mihise gainean  
100 x 100 cm

Artistaren bilduma, Pekin



## Song Dong

*Urari zigiluak jartzen (Stamping the Water), 1996 (xehetasuna)*

Koloretako 36 inprimaketa

61 x 40 cm bakoitza

The Metropolitan Museum of Art, New York, Cynthia Hazen Polsky-k agindutako dohaintza

Performancearen ikuspegia: *Keepers of the Waters: Public Art concerning Water*, Lhasa, Tibet, 996ko abuztuak 18–19

Argazkia: artistaren eta Pace Gallery-ren eskaintza



## Wang Xingwei

*Pekin Berria (New Beijing), 2001*

Olio-pintura mihise gainean

200 x 300 cm

M+ Sigg Collection, Hong Kong, dohaintza

Argazkia: honen eskaintza: M+, Hong Kong



## Cao Fei

*RMB City: China Tracyren (Cao Fei izenaz ere ezagutzen da) Second Life hiri-planifikazio bat [RMB City: A Second Life City Planning by China Tracy (aka: Cao Fei)], 2007*

Koloretako bideoa, soinuduna, 6 min

Solomon R. Guggenheim Museum, New York,

honek emandako funtsekin erositako: Young Collectors Council, Shanghai Tang-en funts erantsiekin, 2008.30



## Qiu Zhijie

*"Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia" erakusketaren mapa (Map of "Art and China after 1989: Theater of the World"), 2017*

Tinta paper gainean, zeta gainean muntatua, sei panel

240 x 720 cm guztira

Solomon R. Guggenheim Museum, New York,

Artistaren dohaintza, honek emandako funts gehigarriekin: International Director's Council T31.2017

Argazkia: artistaren eskaintza




## Wang Guangyi

*Mao Zedong: Sareta gorria, 2. zkia. (Mao Zedong: Red Grid No. 2)*, 1988

Oil on canvas

147 x 117 cm

M+, Sigg Collection, Hong Kong



## Chen Zhen

*Bat-bateko erditzea (Precipitous Parturition)*, 1999

Bizikleta-gurpilen kautxozko kamerak, aluminio eta plastikozko jostailuzko autoak, metala, bizikleta-zatiak, silikona eta pintura

Luzera: 26 m gutxi gorabehera, diametroa: 150 cm gutxi gorabehera

Pinault Collection, Paris

Instalazioaren ikuspegia: *Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia*,

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2017ko urriak 6–2018ko

urtarrilak 7

Argazkia: David Heald © Solomon R. Guggenheim Foundation, 2017



## Cai Guo-Qiang

*Onddo itxurako hodeien mendea: XX. menderako proiektua (Manhattanera begira)* [*The Century with Mushroom Clouds: Project for the 20th Century*

*(Looking toward Manhattan)*], 1996

New York hirian egina, 1996ko apirilaren 20an

3 s, gutxi gorabehera, bolbora (10 g) eta kartoizko tutua

Argazkia: Hiro Ihara, honen eskaintza: Cai Studio



## Lin Tianmiao

*Josten (Sewing)*, 1997

Josteko makina, mahaia eta haria

Gutxi gorabehera 98 x 80,8 x 43 cm guztira

Koloretako bideo-proiektzioa, soinuduna, 30 s

Take A Step Back Collection

Argazkia: artistaren eskaintza



## Yang Fudong

*Paradisu urrun bat (An Estranged Paradise)*, 1997–2002

35 mm-ko filma, zuri-beltzean, soinduna, 76 min

The Museum of Modern Art, New York, dohaintza, Marian eta James H.

Cohen-ek egina Michael Harrison Cohen beren semearen oroimenez



## Yang Jiechang

*Bizitza-lerroak I (Lifelines I)*, 1999

Tinta eta akrilikoak paper gainean, mihise gainean muntatua

230 x 590 cm

Artistaren eskaintza

Instalazioaren ikuspegia: *Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduaren antzerkia*,

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2017ko urriak 6–2018ko

urtarrilak 7. Atzean: Gu Dexin, *2009-05-02*, 2009 (xehetasuna)

Argazkia: David Heald

© Solomon R. Guggenheim Foundation, 2017



## Ai Weiwei

*Han dinastiako kutxa bat erortzen uzten (Dropping a Han Dynasty Urn)*, 1995

(2017an inprimatua)

Zilar-gelatinazko hiru kopia

148 x 133,2 cm bakoitza

Erakusketako kopia

Honen eskaintza: Ai Weiwei Studio

